

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA
MARIA CRISTINA VAL SARDÓN
IGOR OTERMIN EGUIA
IÑAKI ELIZALDE ZUBILLAGA
AITZIBER OTAMENDI ECHARRI
NEREA YEREGUI BALDA
ANDER PRADOS OTAMENDI

BERTARATU EZ DIRENAK

IDAZKARIA

Joanes Aleman Ollo

Betelun, udaletxeko bilkura gelan, 2024ko urriaren 29an arratsaldeko zazpi eta erdiak direnean, Lorenzo Zubillaga Goicoechearen jaunaren lehendakaritzapean eta egintzaren fede ematen duen Joanes Aleman Ollo idazkariak lagundurik ondoan aipaturiko zinegotziak elkartu dira.

Udal bilkura dagokion deialdiaren ondoren egin da, erreglamentuan ageri den aurrerapenarekin eta deialdia beraren eta gai zerrendaren ale bat udaletxeko iragarki oholean iragarri ondotik.

Ohiko izaera duen bilkura irekirik eta lehendakaritzak publikoa dela esanik; Idazkariak bilkura hasteko behar den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztaturik; gai zerrendan diren ondoko puntuak aztertzeari ekin zaio.

1. 2024-09-24KO UDAL BILKURAKO AKTAREN ONARPENA

Deialdiarekin batera banatu den 2024-09-24ko bilkurako aktaren inguruan udalbatzako kideren batek zerbait esateko duen galdetu du lehendakariak.

Zinegotzi bakar batek ere ez du deus adierazi.

Lehendakariak akta bozkatzera ekarri eta udalbatzak aho batez onartu du.

2. ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENAK:

1. Trantsizio energetikorako laguntzen uko egitea

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko irailaren 24an, 47/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Plaka fotovoltaikoak jartzeko Energia, I+G+b, Enpresa eta Ekintzailetzako zuzendari nagusiaren irailaren 13ko 295E/2024 ebazpenaren bidez emandako 40.000 euroko dirulaguntzari uko egitea.

2. Ordainketa agindua

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko urriaren 10ean, 48/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2024ko irailaren 24an egindako osoko bilkuran onartu ziren fakturak ordaintzea.

3. Wisco Española

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko urriaren 17an, 49/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Wisco Española Sari hirigintza lizentzia ematea Beteluko 2. poligonoko 101. partzelan araztegi bat jartzeko, hozteko dorren tratamendutik datozen urak kolektorera isurtzeko eta Araxes ibaira egiten den isurketa ezabatzeke.

3. JASOTAKO IDATZIAK

1.- Euskal Herrian Euskaraz

Euskal Herrian Euskaraz erakundeak laguntza ekonomikoa eskatu du euskararen arloan egiten dituzten jarduerak direla eta. Honen harira, Udalbatzak aho batez zera onartu du:

Udal honek dituen aurrekontu mugapenengatik eta jada Nafarroa Oinez eta Korrika lagundu dituenez, Euskal Herrian Euskarazek egindako diru eskaera ez onartzea.

2.- Gure Esku Dago

Gure Esku Dagok, Herri Libre Bat! dinamikaren baitan, Bagara lagun izateko 200 euroko ekarpena eskatu dio Beteluko Udalari.

Hau ikusita, Beteluko Udaleko udalbatzak aho batez zera onartu du:

Udal honek dituen aurrekontu mugapenengatik eta jada Nafarroa Oinez eta Korrika lagundu dituenez, Gure Esku Dagok egindako diru eskaera ez onartzea.

4.- GESERLOCAL SL BETELUKO UDALEKO ENTE INSTRUMENTAL DEKLARATZEA

Geserlocal S.L. NUKFk eta Zangozako, Erriberriko eta Lizarrako udalek sortutako merkataritza-sozietatea da, Nafarroako toki entitateei nahitaezko diru-bilketaren alorrean zerbitzua emateko. Egun, Geserlocalek bere helburu sozialaren barruan dauden bestelako zerbitzu osagarriak ematen dizkie toki entitate horiei.

NUKFK Sozietatearen kapitalaren %97 du eta gainontzekoa aipatu udalei dagokie. Orain arte, Geserlocalek beste zerbitzu batzuk eman dizkie Nafarroako toki entitateei kontratazio araudiaren arabera esleitze akordio bidez.

Kontuan hartuta kontratazioari buruz indarrean dagoen araudia eta botere esleitzaleei eta erakunde instrumentalei buruz dauden aurreikuspenak, bereziki Kontratazio Publikoari buruzko 24/2014 Zuzentaraua eta apirilaren 13ko Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legea, Sozietate honi erakunde

instrumentalaren izaera esleitzea posible da ez soilik haren kapitalean parte-hartzea duten udaletan baizik eta NUKFren kide diren toki entitateetan ere, Federazioa sozietatearen titular nagusia delako. Horrenbestez, erakunde instrumentala izateko baldintzak bete egiten dira:

- 1.- Sozietatearen kapital guztia publikoa da.
- 2.- NUKFk eta horri atxikitako toki entitateek, federazioaren bitartez, batera egiten dute Sozietatearen gaineko kontrola.
- 3.- Geserloalek bere jardueraren funtsezko zati bat bitarteko propio gisa esleitu duten toki entitateentzat egiten du.

Hala jakinarazi du Nafarroako Kontratazio Publikoko Batzordeak 1/2021 txostenean. Aurrekoa kontuan harturik, NUKFren Batzorde Betearazleak irailaren 14an egindako saioan erabaki zuen Geserlocal Federazioari atxikitako toki entitateen erakunde instrumental bihurtzea hala erabakitzen duten toki entitateetan.

Horrenbestez, Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 8.2.d) artikuluan xedatutakoari jarraiki,

ERABAKI DA:

1. Geserlocal S.L. Beteluko Udalaren toki entitatearen erakunde instrumental deklaratzeko aipaturiko Foru Legearen 8. artikulua xedatutakoaren ondorioetarako.
2. Adieraztea enkarguek nahitaezko diru-bilketari, isunen kudeaketari, kontabilitateari eta sozietatearen xedearekin bat datozen beste batzuei dagozkien prestazioak har ditzaketela barnean.

Honako erabakia NUKFri eta Geserlocali jakinaraztea eta Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratzea.

5. UDALBATZAREN EZAGUTZARAKO

- 1. Uholdeen aurkako neurriendako dirulaguntzak behin behinean ematearen ebazpena**

Udalbatzari Europako Batasunak (Next GenerationEU) finantzatutako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren baitako Nafarroa guztiko herrigune guztietan uholde arriskua dela eta babes eta egokitze neurriei eta ingurumen-integrazioari buruzko toki entitateendako dirulaguntza jakinarazi zaio. Horren arabera, dirulaguntza bat eman zaio Beteluko Udalari: 37.675 euro sareta bidezko drainatze-sarea egiteko. Zubialde etxe inguruan Araxes erreko harriak kentzeari buruzko proiektua aldiz, ezetsi egin dute aurrekontu-kreditu nahikorik ez izateagatik.

6. FAKTUREN ONESPENA

	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Leitzako Udala	AL 21 RED NELS	60,51 €
Ekilan	F. 34616	1.091,34€
Venus Campos Walsh	F. DFA-34	2.833,41€

Wikai	F. 1/21772	112,26 €
Orona	F. 2404346023	355,74 €
Angelines Carrillo Ruiz	F. A17/2024	90,00 €
IDM Medical	F. 1775	128,84 €
Iberdrola	Argiztapen publikoa iraila	540,88 €
Iberdrola	Udaleko pisua iraila	9,22 €
Iberdrola	Urberoa iraila	6,51 €
Codisna	Hipoclorito erosketa	165,77 €
Goiener	Udaletxeko iraileko argia	492,08 €
Goiener	Eskolako iraileko argia	812,26 €
Rekalde Zurgindegia	F. 716	1.989,62 €
Rekalde Zurgindegia	F. 717	290,40 €
Rekalde Zurgindegia	F. 718	36,30 €
Rekalde Zurgindegia	F. 719	240,45 €
Rekalde Zurgindegia	F. 720	273,58 €
Rekalde Zurgindegia	F. 723	479,05 €
Rekalde Zurgindegia	F. 724	1.364,82 €
Rekalde Zurgindegia	F. 725	797,16 €
Iberdrola	Argiztapen publikoa iraila	438,36 €
Ion Ezcurdia Azcona	F. 825	313,20 €
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 60-2024	121 €
Chocarro y Urmeneta	Aholkularitza 2 eta 3 T	1.633,50 €
Chocarro y Urmeneta	Informe y valoración 2/69 manantiales	968 €
Comercial Fervis	F. 3.099	220,41 €
Lorenzo Otamendi Artola	Iraileko mugikortasuna	114,10 €
Baiza motor	F. I24/2815	623,20 €
Serinoski	F. A248	84,70 €
Mari Tere Janaridenda	F.2024-12	43,50 €
Mari Tere Janaridenda	F. 2024-15	123,20 €
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 61/2024	175,92 €
Lorenzo Otamendi Artola	F. 1014 taxi jaia Lekunberri	87,95 €
Leroy Merlin	F. Material erosketa	44,27 €
Obramat	F. Material erosketa	7 €
Super Bazar	F. Material erosketa	7,05 €
Zigari Elkartea	Irailak 14ko auzolaneko gosaria	62,60 €
Hortalizas Etxeberria	F.24001639 landareak	30,50 €
Hortalizas Etxeberria	F.24001546 landareak	22 €
Ofico	F. F244089	126,92 €
Fundibide	F. 244963	84,70 €
SORGINTXO HAUR ESKOLAKO LEHEN ZIKLOA		
Kurmi	Kutxatik ordaindua	19,90 €

Afedo	Kutxatik ordaindua	11,90 €
Seikide	F. 1766	372,08 €
Arkupe	Kutxatik ordaindua	6 €
Rosa Estanga Arrizubieta	Iraileko garbiketa produktuak	30,20 €
Rosa Estanga Arrizubieta	Iraileko janaria	50,43 €
Angelines Carrillo Ruirz	F. A18/2024	38,30 €
Infosizal SL	F. 241360	72,12 €
	DENETARA:	17.937,44 €

Lehendakariak fakturak bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren kide guztiek aho batez onartu egin dituzte.

7. GALDERAK ETA ESKAERAK

Ez da ez galdera ez eta eskaerarik egin.

Arratsaldeko zortziak eta erdiak direnean, bilkura amaitu eta altxatu egin da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.